



2021eko OTSAILA
198

taxi kitto!

Maskaradun aratosteak





Euskara Elkarte

Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Urkizu ikastetxea

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia



Bazegoen gizon bat
zatar zatarra zena.
Egun batean zatarren
lehiaketa bat zegoen
eta apuntatu egin zen.
Lehiaketaren eguna iritsi
zenean atezainak esan
zion:
- Aizu, hemen ez dugu
profesionalik onartzen.



Marakak txirulari:
- Musika jotzen dugun
bakoitzean sekulako
buruko minez bukatzen dut.
Eta txirulak marakari:
- Ez zaitez hainbeste kexatu!
Nirea okerragoa da! Ipurdia
babaz beteta dudalarik
amaitzen dut!



Zein da frutarik
barregarriena?
Laranja JA JA JA JA JA!

Nola esaten da argala
txineraz?
Fla ku txing.



Zanahoria zein
kolorekoa zen?
Zan horia!



● Bi hondar-ale
basamortutik doaz
eta esaten dio
batak besteari:
- Begira, begira!
Manifestazio bat!!



● Mutil bat hain zen
tontoa aparkatutako
triziklo batek harrapatu
zuela.



- Doktore jauna! Ezin dut bururik altxa, bakarrik egiten dut
barre, ez dut jendearekin hitz egiten, jendeak hitz egiten
badit ez diet arretarik jartzen, kaikua ematen dut! Zer
daukat?
- Whatsapp.

● Patxi marrubiak
simaurrekin
ongarritzen
zegoen eta lagun
batek galdetzen dio:

- Zer ari zara egiten?
- Hemen, marrubiei
kaka botatzen!
- Aiba! Eta natarekin
ez duzu probatu?






LETRA-ZOPA

- IZURDEA
- MARRAZOA
- OLAGARROA
- ANTXOA
- BERDELA
- SARDINA
- BISIGUA



| | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| S | A | R | D | I | N | A | U | Z | B | E |
| B | N | W | Z | I | D | D | W | L | D | O |
| O | E | B | G | O | A | T | T | L | O | Z |
| Z | L | R | I | U | K | A | E | I | G | X |
| O | R | A | D | R | Z | B | M | O | D | E |
| I | B | Z | G | E | A | W | U | N | T | A |
| Z | X | O | A | A | L | E | D | A | U | N |
| U | I | T | A | N | R | A | M | E | S | T |
| R | O | L | A | G | U | R | O | B | I | X |
| D | U | N | R | S | T | A | O | K | I | O |
| E | E | R | Z | S | F | M | H | A | J | A |
| A | D | A | A | O | Z | A | R | R | A | M |
| B | P | A | U | G | I | S | I | B | L | N |


KOLOREZTATZEN




- 1 BERDEA
- 2 GRISA
- 3 GORRIA
- 4 HORIA
- 5 LARANJA
- 6 URDINA
- 7 ARROSA
- 8 MOREA
- 9 MARROIA
- 10 BELTZA



BI FOXPOLO BAKARRIK
MUGITUZ, OSATUKO AL
ZENITUZKE BOST LAUKI?



BIHOTZA KOPATIK
KANPO UTZI, BI
ZOTZ BAKARRIK
MUGITUZ ETA
KOPAREN FORMA
MANTENDUZ.



Lauki hauetako bakoitzean
Gipuzkoako herri baten izena dago,
baina letrak nahastuta daude

LOTU GEZI BIDEZ




8 desberdintasunak



Bidali erantzunak **MARTXOAK 10** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



Aurreko hileko irabazlea, HELENE VEGA

Aupa HELENE, txapeldun! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko sudadera zuretako! ZORIONAK!

*Poz-pozik jaso zituen sariak
Helenek gure bulegoan.*



Argiak 8 minutu eta 17 segundo behar ditu Eguzkitik Lurraren azalera bidaiatzeko. Horrek esan nahi du, eguzkia itzaliko balitz, 8 minutu geroago jakingo genukeela.



Eskuko azazkalek lau eta bost hilabete arte behar dituzte guztiz hazteko, zerotik hasita.



Ezkerraldeko birika eskumakoa baino txikiagoa da, bihotzari lekua uzteko.



Zientzialari batzuek marrazo berezi bat aurkitu zuten Groenlandian: hartz zuriak jaten ditu eta 200 urtera arte bizi daiteke!



Neskek, batez beste, 62 aldiz egiten dute irribarre egunean; mutilek, berriz, egunean 8 aldiz besterik ez.



Piratek partxe beltza eramaten zuten begian, ilunpean hobeto ikusteko.



Marrazo baten haurdunaldiak 4 urte irauten du.



8 urte irauten duen lagunak bizitza osorako laguna izango da!



Kirikinoek hori kolorekoa ikusten dute dena.



Kameleoien mingainak euren gorputzaren luzera bera du.



Txakurrak berehala konturatzen dira triste ote zauden, eta zuregana gerturatuko dira zu kontsolatzeko.



San Andres

La Salle



Iturburu

Amaña



Aldatze



Urkizu



Inoizko Play Back lehiaketa arrakastatsuen



Mozorrorik onenaren saria La Salle ikastetxeko “Gaua eta eguna” taldea (Irene Alonso, Alaitz Herrera eta Nora Mugika).

Inoizko Play-Back lehiaketarik ez ohikoenaz gain, arrakastatsuen ere izan da, horixe baietz! Zuek bai zuek, langileak eta txapeldunak! Egoera zailari aurre eginez pozarren hartu duzue ... eta kitto! Euskara Elkartek Play Back lehiaketan parte hartzeko egin dizuen eskaintza eta guztira... 28 taldek hartu duzue parte! Bideoak txukun-txukun grabatu dituzue eta sekulako lana egin duzue! Eta, jakina, epaimahaiarentzat ere ez da batere erraza izan talde irabazleak aukeratzea. Zorionak saridunei eta eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!

Taldeei egindako elkarrizketak ikusteko sartu hemen:

Gaua eta eguna taldea (La Salle)
<https://youtu.be/uu7WOpQh9o4>



Koreografiarik onenaren saria J.A. Mogel Ikastolako “Olatuak taldea (Mara Olañeta, Miren Errasti, Nora Ortueta eta Eneritz Garitaonandia).

Olatuak taldea (J.A. Mogel)
<https://youtu.be/JHVydhoBRsE>



Interpretaziorik onenaren saria J.A. Mogel Ikastolako “Tximeletak” taldea (June Amuategi, Arrate Aizpuru, Araia Lafuente eta Ane Arritokieta).

Tximeletak taldea (J.A. Mogel)
<https://youtu.be/cFW2Dkef6TsT>



Ainguk ere bat egin du Aratosteekin



Aldatze ikastetxeak, Eibarko gainerako ikastetxeek bezala, ez ohiko aratosteak ospatu ditu aurtan. Umeak izan dira han ere protagonista nagusiak baina umeekin batera bada beste protagonista garrantzitsu bat: Aingua. Aldatzeko maskota da Aingua, euskararen ikurra, eta bertako ikasleek asko maite dute. Azkeneko urteetan mozzorrotu egin ohi dute Aingua eta aurtan ere gauza bera egin dute. Oraingoan Euskal Ihaunterietako pertsonaiekin mozzorrotu dute.

ZEHAO YE, 11 URTE



Aingua gure eskolako maskota da eta hiru urte ditu. Jakin dugunez Eskolako logotipoak bi aingura ditu eta hortik sortu zen maskota Aingua izateko ideia. Gure taldeak Momotxorroz mozzorrotu du Aingua. Adarrak ditu, bufalo baten antza dauka, praka bakeroak ditu, manta zuri baten antzekoa eta odola. Oso esperientzia polita izan da, eta oso polita gelditu zaigu.

ASIER UNANUE, 10 URTE



Aingua euskararekin lotzen dut. Aldatzeko maskota izateaz gainera, euskararen maskota ere bada. Berak nahi duena da guk guztiok euskaraz hitz egitea, eta horregatik gustatzen zait hainbeste. Gure taldeak Joaldunez jantzi du Aingua. Gorputza artilez, txapela zintekin, gona eta abarkak. Oso ondo pasatu dugu taldean Ainguentzat mozzorroa prestatzen, dibertigarria iruditu zait.

JULIA ETXEBERRIA,
10 URTE



Ainguk euskara transmititzen dit eta bera dagoenetik uste dut gehiago egiten dudala euskaraz. Animatu egiten gaitu eta gogoratzen digu gehiago erabili behar dugula euskara. Gure taldeak ere Joaldunez jantzi du Aingu. Nik Ainguren marrazkia egin dut eta dekorazioa jarri diot: txapela, abarkak... Hasieran ez zitzaigun oso erraza egin, ze ez genituen Joaldunak ezagutzen. Lan honek balio izan digu euskal ihauterietako pertsonaiak ezagutzeko. Aratosteak bazetozela esatera etortzen ziren herrietara menditik, atzean kanpai handi moduko batzuk dituzte. Oso politak dira eta gure Aingu ere oso ondo gelditu zaigu.

NAGORE PEREZ,
10 URTE



Ainguk gogoratu egiten digu gehiago hitz egin behar dugula euskaraz, gehiago erabili behar dugula gure hizkuntza. Eta nagusia naizenean ere gogoratuko dut, nolakoa zen gure eskola eta zein zen Aingu, eta zein inportantea den euskararentzat. Nire taldeari Markitos pertsonaia tokatu zaio: gizon inportantea da eta beti dago hasarre. Trajez jantzen da eta ikurriñaren koloreko koilarra darama soinean. Hasieran taldean ados jartzea kostatu zitzaigun baina gero berehala konpondu ginen eta oso Aingu dotorea gelditu zaigu.



AITANA ARRIAGA,
11 URTE



Gaur egun jendeak oso gutxi hitz egiten du euskaraz, eta Ainguk gogoratzen digu gehiago egin behar dugula. Hori oso inportantea iruditzen zait. Nire taldeak Mairuz mozorrotu du Aingu. Koloretako ohiak zatiak ditu zintzilik eta lastozko kapela. Dena oihalez ez egitearren, koloretako pinotxo papera ere erabili dugu, eta oso polita eta oso koloretsua gelditu zaigu. Esperientzia dibertigarria izan da, egunero egiten ditugun gauzekin alderatuta desberdina den zerbait egin dugu, eta ondo etortzen zaigu horrelakoak egitea.



ANER MURILLO,
11 URTE



Niretako Aingu oso inportantea da, gogoratzen digulako euskaraz berba egin behar dugula. Euskararen Egunean jaio zen, orain dela hiru urte. Gure taldeak Altsasukoz mozorrotu du Aingu. Pixkat beldurgarria da baina oso ondo geratu zaigu. Hartz baten modukoa da, pixkat arraroa. Txapela dauka eta gainean maskara bat. Ile txuria eta kopeta-ile gorria, kamiseta zuria odolez zikindua eta hiruhortzekoa. Politak gelditu da baina beldurgarria ere bai!

URKIZU

Pandemiak Euskal Herria gogor erasotzen duen sasoi honetan, URKIZU eskola ez da geldirik egon. Begira bestela zer kontatzen duten handik datozen berriek: Eskolako 3. mailako ikasleek berriz ere jarri dute martxan gure eskolako baratza. Besteen artean, letxugak landatu dituzte eta laster, landaketaren emaitzarekin, hamaiketako osasuntsua egitea espero dute. 5. eta 6. mailetakoei “Sexu heziketa” izeneko ikastaroa jaso dute. Nerabezeroaren atean egonik, gai interesgarria da. 1go mailakoek “Ploey” filma ikusi dute. Zientzia ere oso kontuan izan dugu egun hauetan. Alde batetik, 6. mailan “Zientzia tailerrak” egin dituzte eta “Emakume zientzialarien eguna” ere ospatu dute. Azkenik, robotika tailerrak izan ditugu 5. eta 6. mailatan. Adimena eta irudimena ederki astindu dituzte.



AMAÑA

AMAÑAko ikastetxean aurten ez diogu uko ekin aratosteak ospatzeari! Iaz Zaldibarko hondamendiaren ondorioz erabili ezin izan genituen mozorroak berreskuratu ditugu eta jolastokia zomorroz beteta izan dugu. Bestetik, ezusteko ederra hartu genuen lehengoan! Ez zitzaizkigun ba COVID-19aren kontrako bakuna ematera etorri??! Han guztiok ilaran: altxa jertsea, erakutsi besoa, bat-bi eta hiruuuu... Baina zast! egin beharrean a zer nolako barre algarak! Badakizue zer gertatu zen? Eguen Zuri zela eta sukaldekoak medikuz mozorrotuta azaldu zitzaizkigula! Orduan bai, gu ere barre-algara batean hasi ginen.



LA SALLE

LA SALLE ikastetxean, San Blas egunean, Ismael apaiza etorri zitzaigun opilak bedeinkatzera. Aurten dugun egoera dela-eta, gelaz gela pasatu zen ikasleek ekarritako opilak bedeinkatzera. Zelako usain goxoa eduki genuen egun osoan eskolan... Ummm... Bestetik, aratosteak ere ospatu genituen eskolan. Aurten modu berezian baina ahalik eta gehien disfrutatuz. Ezin izan ginen kalera irten, desfilean, eta eskolan egin genituen ekintza guztiak. Gaia librea izan zen. Gelako argazkiak atera genituen eta gero bakoitza bere gelan egon zen baina diskofesta, marrazkiak, kareta... egin zituzten. Primeran pasatu genuen! Gainera, Izartxoko begiraleek photocall-a prestatu zuten ikasleek ahalik eta gehien disfruta zezaten.



URKI

Ikasturte berezi honetan, gure jarduerak eta ekintzak ere moldatu behar izan ditugu, baina, hala ere, Gaztainerre eta San Andres egunak gogoratu genituen eta eskolako txikiek Olentzeroren bisita ere izan zuten.

Urtarrilean eta otsailean ere izan ditugu ekintza batzuk, besteak beste HH-ko 4 eta 5 urtekoak “Koko oihanean” filma eskolan ikusi dute eta ondoren etxean ikusteko aukera izan dute. Otsailaren 4an, aurten ere Santa Ageda koplak abestu genituen baina bakoitzak bere gelan. Urtero egiten ditugun irrati-saiotxoak ere moldatu behar izan ditugu, baina hor ari dira HH eta LH-ko ikasle eta irakasle guztiak lan eta lan, saio ezin politagoak prestatzen!



ALDATZE

Hemendik aurrera, ALDATZEko 3. eta 4. mailako ikasleak etxean konfinatzen badituzte ez dute inolako arazorik izango eskolarekin eta irakasleekin konektatuta jarraitzeko. Otsaileko lehen egunetan gela hauetako ikasle guztiak ordenagailu txiki bana eskuratu dute eta dagoeneko ordenagailuaren erabilpenean lehen urratsak eman dituzte.



SAN ANDRES

SAN ANDRES ikastetxeak bat egin zuen aurreko otsailaren 11n mundu mailan ospatzen den “Emakume eta neska zientzialarien nazioarteko eguna”-rekin. Historian zehar emakume zientzialarien bizitza eta lana ikusarazteko eta neskek txikitatik haiek ere zientzian jarduteko kapazak direla ikus dezaten erreferente gehiago sortzeko helburuarekin hainbat ekintza antolatu ditugu.



ITURBURU

Ez ohikoak izan dira aurtengo aratosteak, eta ITURBURUN ez dugu betiko moduan ospatu. Hala ere, egin egin ditugu gauzak. Euskal Ihaulerietako pertsonaien inguruko galderak erantzunez puzzle erraldoiak osatu ditugu gela bakoitzean. Gaiarekin lotuta dantzak entsaiatu ditugu, gero, Eguen Zuri egunean kalejira antzeko bat egiteko. Eta ondoren, txokolatada egin genuen! Bestalde, maskarak, antifazak... ere egin ditugu aurten. Euskal kulturaren transmisioa indartzea bada gure helburua, festarako poza izan dadila gure galburua, gora aratosteak!





sukal-saltsan

Anana errea

Zenbatentzat?

4 lagunentzat

Zenbat denbora?

15 minutu

OSAGIAK :

- Anana bat
- Lau goilarakada azukre
- Lau goilaratxo gurin
- Esnegaina 100 cl



Errezeta gozo eta exotikoarekin gatoz oraingoan, anana errea. Erraza, denak txundituta lagatzeko modukoa. Aurrera!

Nola egin:

- 1.- Moztu anana lau trontzatan; ez daitezela finegiak izan. Trontza bakoitzari azala kendu, eta erdian duen zati gogorra aizto baten laguntzaz txukun- txukun kendu.
- 2.- Zartagin bat sutan berotzen jarri; bertara goilaratxo txiki bat gurin gehitu, eta, gurina urtzen hasten denean, anana zatiak zartaginera gehitu, goilarakada bat azukrerekin batera. Gurina eta azukrea erretzean, anana karamelizatuko da; orduan, ananari buelta eman eta beste aldetik ere minutu eskas batez gorritu. Pauso bera jarraitu

gainontzeko hiru anana zatiekin, aldika gurina eta azukrea gehituz.


- 3.- Anana guztiak gorrituta ditugunean gorde. Erabili dugun zartagin berean esnegaina bota, eta su bizian pare bat minutu irakiten eduki. Horrela, karamelo-saltsa irtengo zaigu.
- 4.- Ananak zerbitzatzeko gainetik karamelo-saltsa botatzea besterik ez zaigu falta.



Arrautza beteak amonaren erara

Amonaren erara baldin badira, gozoak egongo dira seguru! Arrautzak egosi eta nahastu gorringoak atun lata batekin, oliba bete ugarirekin eta hiruzpalau maionesa koilarakadekin. Arrautzak masa horrekin bete. Maionesarekin edo bexamelarekin zerbitzatu daiteke. Plater beroa egiteko aukera ere badago, tomatearekin, adibidez, baina kasu horretan lehenik arrautzak irinetan arrautzatzatu eta frijitu egin behar dira.





Laba-lanpara

MATERIALA:

- Botila bat – 1 litro
- Inbutu bat
- Ura
- Olioa
- Elikagaientzako koloratzaile likido pixka bat



Nola egin:

- 1.- Botila hartu eta, inbutuaren laguntzaz, ur baso baten $\frac{3}{4}$ botako dugu barruan. Jarraian olioa botako dugu, botila ia goraino bete arte.
- 2.- Minutu batzuek atseden hartzen utziko dugu, olioa eta ura erabat bereizita geratzen diren arte; olioa goialdean eta ura behealdean.
- 3.- Elikagaien koloratzailea gehituko diogu, hamar tanta. Tantak olioaren zeharkatuko dute eta urarekin nahastuko dira. Azkenik, pastilla eferbeszenteak erdibitu eta botilan sartuko ditugu.
- 4.- Botila gorde dezakezue (tapoia jarrita, jakina) eta nahi duzuenean berriro erabili; beste pastilla eferbeszentea bota besterik ez da behar.



Puxiken itsaspekoa

Behar duzun bakarra hau da: 3 ur puxika txiki; azkoin (tuerka) handi bat (azkoin zabal samarra beharko duzu, puxikak nahiko solte geldi daitezten eta zulotik ura sar dadin); plastikozko botila bat eta ura. Sartu hiru puxikak azkoinean, ahoa pixkat kanpora gelditzen zaiela. Sartu eskuz egindako itsaspeko hori urez betetako botila batean eta itxi botila. Estutu botilaren beheko aldean eskuaz. Begira nola jaisten diren puxikak hondoraino! Botila estutzean uzten diozunean, berriz, gainalderaino igoko dira, berriro, eta ur gainean geldituko dira.




Horrelako gehiago: www.esperimentuak.eus



zer irakurri

Juan San Martin Liburutegia




Aldaketa 6 urtetik aurrera

“Aita, gauzak aldatzen ari dira!” esaten dio urduri eta izututa, hartz txikiak aitari. Bere mundu zuria aldatzen ari da, eta ez onerako... Zergatik? Ezin ote dugu ulertu planeta gure etxea dela eta bertan bizi garenon esku dagoela hura zaintzea? Hartz txikiak, behintzat, ongi asko daki hori... Klima-aldaketaren eragina haurrei kontatua; ipuin zoragarria, hartz baten ikuspegitik.



Kokonutt 8 urtetik aurrera

Istori txundigarri horren protagonista zazpi urte baino gehiago eta hamaika baino gutxiago dituen Doretta da. Doretta oso argi dauzka ideiak: egunen batean, fama-tua izango da. Bere izen artistikoa pentsatuta dauka: Kokonutt.



Ata Pank eta Ate Punky 10 urtetik aurrera

Ata Pankek eta Ate Punkyk zoologikora joan nahi zuten lehoia molestatzera. Ilusioa egiten zien animalien Errege omen zen hari oihu eta burla egiteak. -Goazen oraintxe bertan- proposatu zion Ata Pankek kideari. Arratsalde polita egiten zuen, zoologikora paseoan joateko aproposa. -Ondo, Ata- esan zion Ate Punkyk-. Baina, zergatik ez gara ile-apaindegitik pasatzen aurrena? Gandorrak tente-tente ditugula jarri behar dugu lehoiaren aurrean.-Ondo pentsatua, Ate!

“Doble karta-jolasa” (San Andres)

Nola jolasten da?

- 2-8 jokalaria.
- 30 minutuz jolastu daiteke.
- 6 urte baino gehiago izatea komeni da.
- 55 karta daude eta 50 marrazki.
- Karta bakoitzak zortzi marrazki ezberdin ditu.
- Karten artean beti dago errepikatzen den kartaren bat.
- Marrazki berdin hori aurkitu behar da, ahalik eta azkarren.
- Jokalari bakoitzari karta bat emango diogu eta beste guztiak erdian ipiniko dira.
- Karta hauek gora begira ipiniko ditugu marrazkiak ikusteko.
- Jokalari euren kartan errepikatzen den marrazkia bilatu behar dute. Aurkitzean, marrazkiaren izena esan eta karta hartu behar dute.
- Azkarren topatzen duenak hartuko du karta.

jolastokixan jolasian



BIDEOA:

<https://www.youtube.com/watch?v=tvI-SHQti78>





ipuina

Sagarra bizirik dago!

Behin batean bazen ume bat egunero sagar bat jaten zuena eskolara joaten zen bitartean. Sagar bat hartu eta eskolara joaten zen. Egun batean sagarra jatera joan zenean ahots bat entzun zuen:

- Aaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa!!! Ez jan, mesedez! Ez dut ezer egin!!

Umeak, hura entzutean, sagarra lurrera bota zuen.

Orduan, sagarrari, hankatxo batzuk eta besoak atera zitzaizkion. Salto batez lurretik altxatu eta esan zuen:

- Zergatik bota nauzu lurrera???!!!

Umeak harrituta erantzun zuen:

- Hitz egiten duzu eta hankak eta besoak dituzu!!!

- Bai, baina hori ez da lurrera botatzeko arrazoia! Txakur kaha bat zegoen alboan!

Umeak sagarra hartu eta urarekin garbitu zuen. Gero motxilan sartu eta eskolako bidea jarraitu zuen. Eskolan sagarrak borragoma hartu eta jan egin zuen:

- Uuummm... Ez dago gaizki, baina gatz pixcha bat falta zais...

Umeak pentsatu zuen sagarra ez zegoela oso seguru eskolan eta orduan ideia zoragarri bat izan zuen: sagarra lorategian landatuho zuen. Pala bat hartu, zulo bat egin eta sagarra barruan sartu zuen. Egunak pasa eta gero umea konturatu zen egunak ez zirela berdinak sagarrik gabe. Baina sagarra sagarrondo bihurtu zen eta umeak sagarrondorekin egunero jolastea nahi izan zuen. .

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Untzagako plazan!

Iker Nieto. 10 urte





zu margolari